



ZARATA GORRERIA BATZUEN JATORRIAN

Manu Aizpurua(*)

Frantziako unibertsitateetan urte asko egin ondoren El-huyarrekoek beren aldizkaria eskaini didate, hila-betekari bihurtu berri duteneko etapa honetan, bertan lurralde honetan ikusi eta ikasitakoaz idatz dezadan. Jorratzen ari naizen medikuntz arloa osasun publikoari dagokiona da. Arlo honetan arazo medikoekin batera, organizaziozkoak, administraziozkoak, segurtasun eta higiezezkoak, etab. lantzen dira. Aipatutako alderdi hauetako gaiak pixkanaka-pixkanaka azalduko dizkizuet orri hauetan.

Lantegi askotan zarata-maila handia izaten da.



Gorreri arrisku handia, nahiz eta zarataren eragina une batean bakarrik jasan izan

Egunero ordubetez zarataren eraginpean egon ondoren, ondoko gorreri probabilitatea dago:

- % 25 III. grafikoaren kasuan
- % 100 IV. grafikoaren kasuan

Zarataren eraginpean denbora luzea igaro ondoren, gorreri probabilitatea hauex da:

- % 0 II grafikoaren kasuan
- % 100 III grafikoaren kasuan

Giro zaratsua baina arriskurik gabekoa

- Administrazio-lana nekez egiten da
- Lan intelektuala oso nekez egiten da

Giro zaratsua (I' eta II-ren artean)

- Lan intelektuala nekez egiten da
- Administrazio-lana ez da nekez egiten

Giro lasaia

* Rennes-eko unibertsitatea (Osasun Publikorako Saila). Britainia.

Lehen artikulua honetan bizitza modernoarekin lotuta dagoen gaitz sozial bat plazaratu nahi dut, hots, zaratak eragindako gorreria.

Nork ez du bere inguruan entzuteko arazoak dituen pertsonarik ezagutzen?

Industri hiritan areagotu egiten da arazo hau. Lantegietako makineriak, ibilgailu automobilak eta zenbait lokaletako musikak daude batez ere gorreriaren jatorrian.

Gaur egun, zarata baten kaltegarritasuna neurtzeko ondoko bost faktore hauek kontutan hartu behar dira:

Maiztasuna:

tonu altuko zaratak baxukoak baino kaltegarriagoak dira.

Intentsitatea:

90 dB-etik gorako edozein zarata kaltegarri da. Zarata altuaren kaltegarritasun-muga 70-80 dB-eraino jaisten da.

Erritmoa:

maiztasun eta intentsitate jakinetan zarata jarraiak aldizkakoak baino kalte txikiagoa sortzen du.

Lekua:

leku irekitan emititutako zaratak leku itxitan emititutakoak baino hobeto onartzen dira.

Zarataren entzute-denbora:

zarata baten eragina ez da berdina ordu batzuetan edo urte luzeetan entzun bada. Beraz, gorreriaren aurrean faktore honek eragin handia izango du gaitzak har dezakeen eboluzioa aztertzekeo garaian.

Zaratak eragindako ondorioak asko badira ere, honela sailka daitezke.

A) Prozesu guztiz edo partzialki itzulgarriak:

** Zaratak eragindako sindrome orokorra*

Ondorio nabariak zenbait arazo psikologiko eta suminkortasuna izaten dira.

** Entzun-nekea*

Hau, batez ere, lanpostu zaratsutan gertatzen da. Denbora igaro ahala sortutako gorreria definitiboa izan daiteke.

** Traumatismo akustikoa*

Bapateko zarata handiez sortutakoak dira. Meategitako edo harrobitako langileek (lehergailuak erabiltzen direnean) edo telefonistek (kaskoek zarata zuzen-zuzenean belarrira zuzentzen dutenez) osatzen dute populaziorik arriskugarriena.

B) Prozesu itzulezinak

Multzo honetan bi dira aipatu beharrekoak. Presbiakusia edo zahartzarua alde batetik eta lehen aipatutako entzun-nekearen eraginezko gorreria profesionalak bestetik.